

Tokiko produktu gehiago eskaintzeko konpromisoa

204-1

EROSKIn 6. konpromisoak arreta berezia jartzen du gure dendend ingurune sozial eta ekonomikoaren garapenean eta gune bakoitzeko kulturaren sustapenean.

Lehen sektoreko ETEen bidez askotariko eta garapen jasangarrira bideratutako produkzio sektore bat izatea da tokiko nekazaritzako elikagaien munduarekin dugun harremanaren elementu garrantzitsuenetako bat: berezkoa dugu aniztasunarekiko konpromisoa, lankidetzaz inguruneak sortzea eta hornitzaile askorekin jardutea. Estrategia horrek hainbat onura ditu. Alde batetik, ekoizle txikiak EROSKIn merkaturatze kanala dute eskura, beren salgaiak banatzeko; eta hori oso onuragarria da enpleguari, landa garapenerari eta paisaia naturalen kontserbazioari dagokienez.

Beste aldetik, kontsumitzaileek produktu freskoagoak, jasangarriagoak, osasungarriagoak eta kalitate handiagoak aurkitzen dituzte EROSKIn. Izan ere, elikagaien jatorria gero eta garrantzitsuagoa da bezeroentzat, tokiko produktuek hainbat gauza jartzen baitituzte agerian: eskualdeko berezitasunak, antzinako egite moduak, bertako barietate babestuak, beste inon egiten ez diren errezetak, etab. Eta, horrexegatik, EROSKIn, protagonismoa ematen diegu gure merkataritza proposamenean, eta aktiboki laguntzen dugu tokiko proposamena balioesten, janariaren estandarizazioa eta hutsaltzea saihestuz.


Merkataritza enpresa hornitzaileen eta ekoizleen kopurua, autonomia erkidegoka 2018n

Merkataritza hornitzaileak · **Tokiko ekoizle txikiak**

% eskualdeko hornitzaileen ehunekoa, merkataritza hornitzaileen guztizkoarekiko

4.272 merkataritza enpresa hornitzaileak

2.493 tokiko enpresa hornitzaileak



Ikus adierazleen eranskinetako 22. taula, aurreko urteekin alderatzeko.

Lankidetza tokiko nekazaritzako elikagaien ekoizleekin

EROSKlren merkataritza politikak garrantzi handia ematen die tokiko ekonomiei, ingurunean aberastasuna sortuz, eta nekazaritzako elikagaien, ekonomiaren eta gizartearen garapena bideratuz.

EROSKIk 4.200 enpresa hornitzaile inguru ditu Espainian, eta, haietatik, erdiak baino gehiago tokiko ekoizpen enpresa txikiak dira. EROSKlren eta hornitzaileen arteko lankidetza horren oinarriak tokiko nekazaritzako elikagaien ETEekin ezarritako hiru jarduera konpromiso nagusiak dira.

1. Ekoizpen enpresa txikien produktuak kontsumitzaileen esku jartzea.
2. Mikroenpresak, ETEak eta kooperatibak aintzat hartzen dituen merkataritza kudeaketa izatea.
3. Tokiko ekoizleak profesionalizatzeko eta haien enpresak hazteko planetan parte hartzea.

Enpresa hornitzaileekin eta ekoizleekin dugun harremanak badu beste ezaugarri bat: epe luzeko lankidetza akordioak ezartzen ditugu. Hain zuzen, 2018ko ekitaldian, 1.540 akordio egin ditugu ETEekin eta kooperatibekin gure merkataritza eskaintzan tokiko eta eskualdeko produktu berriak sartzeko. Tokiko eta eskualdeko erreferentzia guztietatik, 808 freskoen atalari dagozkio eta 732 elikagaien atalari. Alta berri horiek 11 milioi eurotik gorako salmentak sortu dituzte. Gainera, erakunde sektorialekin ditugun hitzarmenak berriren eta berriak sortzen jarraitzen dugu, tokiko elikagaiak, jatorri deitura babestuek (JDB) eta adierazpen geografiko babestuek (AGB) sustatzeko:

Lekaleen produkzioa eta kontsumoa suspertzeko berrikuntza proiektua

EROSKI, HAZI, GARLAN eta Leartikerrek lankidetza hitzarmen bat sinatu dute 2018an, berrikuntza proiektu bat martxan jartzeko. Proiektu horren helburua da Euskal Herrian ekoizitako lekaleak balioan jartzea eta belaunaldi berriek kontsumi ditzaten bultzatzea, elikagai osasungarria eta jasangarria direlako: produktu berritzaileen dibertsifikazioaren bidez lekaleen tokiko produkzioa balioan jarri eta bultzatzeko konpromisoa hartu da.

Tomate arrosa merkaturatzeko eta sustatzeko hitzarmena

EROSKIk eta Barbastroko Tomate Arrosaren Elkarrekin hitzarmen bat sinatu dute 2018an, barazki hori sustatzeko. Elkarrekin tomate arrosa ekoizten du Barbastron (Huesca), "Barbastroko tomate arrosa" deitura nazionalaren pean, eta kooperatibak lehen aldiz izenpetu du akordio bat harekin.

Boví Balear Natur marka aurkeztu dugu

EROSKIn Balear Uharteetako produktuen kontsumoa sustatzen eta bertako ekoizleekin akordioak izenpetzen jarraitzen dugu. Boví Balear Natur markaren sorrerak aldaketa nabarmena ekarri du txahal haragiaren salmentan, izan ere, Balear Uharteetako gure dendetan saltzen den txahal haragiaren ia %100 bertakoa da. Gainera, haragi horren jatorria kontrolatzeko trazabilitate sistemak dauzkagu.

Lankidetzaren garrantzia agerian gelditzen da, esate baterako, nekazaritzako elikagaiak ekoizten dituzten tokiko enpresekin aldi behin egiten ditugun topaketetan, lehen sektorearen aniztasuna sustatzeko estrategia partekatua eguneratzen baitugu haietan.

Aurten ere atun ontzidiarekin elkartu gara jasangarritasunaren gaia lantzeko

Itsas eta elikagai ikerketan aditua den AZTI zentro teknologikoaren egoitzan (Derio, Bizkaia), Espainiako atun ontzidiko ordezkariak eta ANABAC eta OPAGAC elkarte sektorialetako ordezkariak bildu zituen topaketan parte hartu genuen, arrantza aparailu jasangarriekin arrantzatutako atun bolumena areagotzeko akordioaren bilakaera aztertze eta urrats berriak finkatzeko.

Topaketak euskal eta nafar hornitzaileekin

Topaketa bana egin dugu Euskadiko eta Nafarroako hornitzaileekin (300 ekoizle txikiatik gora Euskadin eta 150etik gora Nafarroan). Kooperatibak lurralde horietako 2.000 eta 1.500 produktu inguru merkaturatzen ditu hurrenez hurren, eta, horrela, jasangarritasunaren eta ekoizle txikiaren aldeko apustuari eusten dio.

Jatorri hautatuko produktuak, elementu bereizgarri gisa

EROSKIIn, bezeroei tokiko eta kalitate handieneko produktuak eskaini nahian, aspaldi sartu genituen adierazpen geografiko babestuak (AGB) eta jatorri deitura babestuak (JDB) gure merkataritza eskaintzan. Ziurtagiri horien bidez, bereziki edo eskusiboki jatorri geografikoaren ondorioz (dela faktore naturalengatik, dela giza faktorengatik) kalitate edo ezaugarri bereziak dituzten elikagaiak bereizten dira. Gainera, JDBen kasuan, produktua deiturak mugatutako eskualde geografikoan eraldatzen eta elaboratzen dela bermatzen da.

Gaur egun, JDBko edo AGBko 2.000 produktu baino gehiago ditugu: 1.500 ardo, 130 gazta, 100 landare kontserba, olio, lekale eta arroz, 300 haragiki eta 100 fruta eta barazki baino gehiago. Gure berezko markan horrelako produktuen alde egiten dugun apustua agerian geratu zen 2018an, erreferentzia berri hauek sartu genituenean: gazten 8 erreferentzia eta ardoen 75 erreferentzia JDBarekin eta landare kontserben 15 erreferentzia, fruta erreferentzia 1 eta dultze erreferentzia 1 AGBarekin.

EROSKI Seleq̃tia markako sagardoa, Euskal Sagardoa jatorri deiturarekin

EROSKIIn tokiko produktuen aldeko konpromisoari eta apustuari eusten diegu, eta Euskal Sagardoa jatorri deiturako gure lehen sagardoa merkaturatu dugu, EROSKI Seleq̃tia gourmet markaren pean. Horrenbestez, Euskal Sagardoa zigiluarekin ziurtatuko kalitatea duen sagardo bati bere marka jarri dion lehenengo banaketa katea gara.

Tokiko produktuen sustapena

Tokiko produktuak sustatzeko, EROSKIk haiekin lotutako kultura, gastronomia eta sukaldaritza balioak ere zabaldu eta sustatzen ditu. Azken urteetan, hurbileko produktuen eskaintza handitu dugu etengabe, eta, aldi berean, tokiko elikagai horien kontsumoa sustatzeko konpromisoa hartu dugu, gure kultura gastronomikoari, **gure ekonomiarri eta gure paisaiei** eusteko bide bat dela uste dugulako

2018an, tokiko 40 kanpaina egin ditugu gure geografia osoko elikagaiak ezagutzera emateko eta sustatzeko, betiere gure dendak dauden eskualdeak lehenetsiz. Merkataritza dinamizazio hori sasoiko produktu freskoei areagotzen da, kontsumitzaileek bereziki estimatzen dituzte eta.



BCC-EROSKI Sariaren VII. edizioa

BCC EROSKI Sariak, Basque Culinary Centerrek eta EROSKik elkarrekin antolatzen dutenak, tokiko produktu tradizional bat erabiliz berrikuntza gastronomikoa balioesten duten sukaldaritzako elaborazioak saritzea du helburu. Zehazki, Espainiako lurraldeetako aberastasun kulturala eta gastronomikoa osatzen duten barietateak eta espezieak sustatzen eta erabiltzen dituzten sukaldariak saritzen dira.

Edizio honetan, bereziki azpimarratu dira osasuna, jasangarritasuna eta sukaldaritzako berrikuntza, enpresa ekoizleekin eta espezie, barietate eta zaporeen biodibertsitatearen babesarekin konpromiso soziala erakutsiz.

Bartzelonako Teòric jatetxeko Oriol Casals izan da irabazlea. Las Palmaseko Summum jatetxeko Xabier Blanco izan da bigarrena, eta Logroñoko Ikaro jatetxeko Carolina Sánchezek eta Iñaki Muruak lortu dute hirugarren saria.

“Mardelaxe” saria VEGALSA-EROSKIrentzat

VEGALSA-EROSKik Laxeeko Arrantzaleen Kofradiaren “Mardelaxe” Saria irabazi du, arraina Laxe, Burela, Celeiro, A Coruña, Malpica, Marín eta Vigoko lonjetan erosita baxurako artisaun arrantzako produktuak balioan jartzeko ematen duen babesaren aintzatespen gisa.



Firas CAPRABO de Productes de Proximitat

Urtean zehar CAPRABOn hainbat azoka sustatu ditugu, ekoizle txikien produktuak bezeroen esku jartzeko. Hainbat lekutako produktuak sustatu ditugu, hala nola Vallés, Camp de Tarragona, l'Anoia eta Maresme eremuetakoak.

Eskualdekako programa Chef CAPRABOn

Chef CAPRABOn Calçot de Valls-eko V. Jardunaldi Gastronomikoen aurkezpena egin da. Gainera, Ruta del Xató izeneko jardunaldiak egin dira berriro, jatorria Kataluniako zenbait eskualdetan (Alt Penedès, Baix Penedès eta Garraf) duen jakiaren tradizioa eta harekin egindako elabrazioak sustatzeko eta haien berri emateko.

“A comida é vida” kanpaina VEGALSA-EROSKIn

VEGALSA-EROSKIn kalitatea bermatzeko Galicia Calidade zigilua duten tokiko produktuak sustatzeko kanpaina bat egin dugu. Gainera, spot berri bat egin dugu Galiziako kultura eta bizitzeko era azpimarratzeko lurreko produkturik onenekin, eta galiziar jatorriko hurbileko produktuak sustatzeko eta dastatzeko hainbat jarduera egin ditugu.

Zaragozako tokiko produktuaren VII. azoka

2018an, Aragoiko enpresa hornitzailerekin elkarlanean, Zaragozako Tokiko Produktuaren VII. Azoka antolatu dugu, tokiko produktuen ezaugarriak ezagutzera emateko eta balioesteko, eta produktu horien kontsumoa sustatzeko. Tokiko produktu asko ikusteko eta dastatzeko aukera emateaz gain, “Aragoiko produktu berritzaileenaren EROSKI ZUREKIN saria” eman zitzaion produktu begetariano ekologikoak hornitzen dituen Biosurya SL enpresari. Era berean, EROSKIk sari berezia eman zion hegazti haragiaren eratorriekin aurrez prestatutako jakiak egiten dituen Casa Matachín–Aves Nobles y Derivados enpresari, EROSKIrekin aspaldidanik duen erlazioa balioan jartzeko.

“Productes de Sa Nostra Terra” kanpaina Balear Uharteetan

Urtero bezala, “Productes de Sa Nostra Terra” kanpaina abiarazi dugu, Balear Uharteetan ekoiztutako, fabrikatutako eta ontziratutako artikuluak nabarmentzeko. Iaz, tokiko produktu horien fakturazioa 85,7 milioi eurotik gorakoa izan zen Balear Uharteetan (aurreko urtean baino %9,5 gehiago). Gainera, 2018an Balear Uharteetako produktuei zuzendutako beste kanpaina batzuk ere egin dira, hala nola Balear Uharteetako arkumea, enpanada, Aste Santuko robiols-ak, Mallorcako AGBko sobrasada eta llonguets delakoak sustatzeko kanpainak.